

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juan Urzelai Zabaleta

*Legazpi,
Gipuzkoa
(1917-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Legazpiko Telleriarte auzoko Santu-Enea baserrian jaio zen 1917an. Aita bertakoa zuen, eta ama Aztiriko Bentakoa; sei anai-arrebatan gazteena da bera. Eskolan Legazpin ibili zen, eta 12 urterako hasi zen "pintxe" lanetan, Elortza paper-lantegian. Gerra garaian Lesakara joan zen soldadu disziplinario moduan, eta zigortu egin zuten "orden público"an lan egiteagatik. Gernikako bonbardaketa bertatik ikusi zuen, eta mendira ihes egin behar izan zuen; orduko bizipenak azaltzen ditu.

Zintak

LGA-046

- **Proiektua:** Legazpiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-07-14
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberría, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Esnea saltzeko tranpak

- **Erref:** LGA-046/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:06:02. **Bukatu:** 00:08:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Esnea oso merke saltzen zen lehen. Bezeroak beti etxe beretakoak ziren. Esnearekin egiten ziren tranpak aipatzen ditu: ura botatzen zuten batzuetan. Esnea saltzeko tranpak nork erakutsi zizkion azaltzen du.</p>

2. Jaiak eta karta-jokoak

- **Erref:** LGA-046/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:10:31. **Bukatu:** 00:12:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

<p>12-14 urte zituztela, jaietan, herriko mutilak karta-jokoan aritzeko elkartzan ziren, eta ardoa edaten zuten. Kartetan, dirua jokatzan zuten.</p>

Transkripzioa

-Ordun auzoko mutillek juntatzen zineten kartetan jokatzera?
-Bai.
-Tabernan baten?
-Bai, Telleriarten, estankon. Hango etxekoandrea, joo, Juanamari zan, Juanamari, eta harek ematen ziun kartak eta geo zeozer hartu're bai guk, zeozer, ardoa eaten gendun, pitxarretik ardoa, litroerdi ardo eaten gendun.
-Pitxarretan ateratzen zen ardoa?
-Bai, pitxarretan.
-Hori jaietakoa izaten zan?
-Bai, bai. Jaien. Kartataa zazpi terdin itten gendun guk. Xiete y medio. Ta bankero..., igualen bankerontzako izaten zan dana.
-Harek bazekin.
-Bai, bankaik ez zun galdu nahi harek. Joe!, Prontxiano...
-Ta zuek dirua jartzen zenuen?
-Bastante. Hogezi zentimo ta. Joku guzitan hogezi zentimo ta. Hamar eta hogezi. Hortik gora ez. Pezetak ez.
-Eta musean eta seiko urrean eta ez al zan egiten?
-Guk musen ez, zazpi terdin itten gendun.

3. Eskolatik piper egiten zutenekoa

- **Erref:** LGA-046/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:18:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Eskolan askotan piper egiten zuten, eta mendira joaten ziren. Han egurrezko kanak erretzen zituzten: kanak nondik hartzen zituzten, kea nolakoa zen...</p>

Transkripzioa

-Eta nora joaten zineten piper eginda?
-Mendira.
-Nora mendira?
-Hor Saletxe aldera ta, Astaola ta. Saletxe aldera. Hor mendi baten eta han txabola bat'e bagenduken eta han erretzen gendutzen zeak, haik zer zien, zea..., zigarrok bezela, egurrezko kañak zien haik, kaña batzuk. Oain izena... Haikin.
-Nolakok zien?
-Holaxen, lapitz honetxan lodierakok.
-Luzeak zien makilla batzuk bezela?
-Bai-bai-bai. Haundik zien.

-Eta nundikan konsegitzen zittuzuen haik?
-Hura moztuta jarri ta sua ematen giñun ta sekulako kea. Min-miñe gaiñea kea.
-Eta nundik hartzen zenituzten kaña haiek?
-Mendiin, hoik mendiin zeren.
-Eta haiei sua ematen ziozuen?
-Bai. Ta erre. Haren keakin min-min-min einda. Miñe, kañe oso miñe da.
-Eta hala ere erre?
-Bai. Kea ta erre.
-Bazan erretzeko ohiturarik, zigarroa ta erretzeko ohiturarik?
-Ez, ez, zigarroik ez.

4. Purua erre zutenekoa

- **Erref:** LGA-046/010
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:42. **Bukatu:** 00:19:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

<p>Lehen ez zuten erretzeko ohitura handirik. Behin purua erretzean gertatutako anekdota kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Puruik ez. Purue baten koiñadoakin Saizabalen bazkarie Telleriarten ordun, Sanjoanetan. Sanjoanetan bazkaltzea Saizabala juten giñen gu Telleriarten, arrebana. Ta han gizona Serapio... nola zon harrek, Aranburu; Juan Pedro zan bestea. Serapio zan han baserrin lana itten zuna ta baserriako izendauta zeukena; Serapio, gure arriben gizona. Ta esan zian baten: "gaur erre behatugu [behar ditugu] ba puruk, erre [behar ditugu] puruk. Sanjoanetan bazkaldu in gendunen. Eta piztu dittu(g)u puruk eta ohittu baik purue erretzen; ni ere bai eta hura gizona edadekoa zan, hura ere bai. Ta biok botaketa, "ganbarote"! Hango ganbaraa junda bota gendun bazkari hori.
-Erretzen ohitu gabe.
-Bai, ohittu baik.

5. 12 urterekin fabrikan lanean

- **Erref:** LGA-046/013
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:22:38. **Bukatu:** 00:25:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza

Laburpena:

<p>12 urte zituela, paper-fabrikan hasi zen lanean; orduan zer zeregin izaten zuen aipatzen du. Paper-fabrikako lan-prozesuei eta makinei buruz hitz egiten du.</p>

6. Paper-fabrikako lana

- **Erref:** LGA-046/015
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:28:23. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Industria motak » Papergintza

Laburpena:

<p>Paper-fabrika, 6etatik 6etara egiten zuen lan. Gizonek eta emakumeek egiten zuten han lan; bakoitzaren zereginak aipatzen ditu. Langintza gogorra zen hura.</p>

7. Patrizionera joateko trikimailuak

- **Erref:** LGA-046/018
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:35:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Askotan izan zuen Patrizioen fabrikara joateko gogo, baina paper-fabrika ez zieten uzten hara joaten. Azkenean, jendeak trikimailuak egiten zituen Patrizioenera joateko.</p>

8. Bizikletak eta automotoak

- **Erref:** LGA-046/020
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:37:56. **Bukatu:** 00:41:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Gaztetan bizikleta bazeukaten, eta Deskargara joaten ziren bizikletan buelta ematera. Bizikleta zaharra izan arren, ondo zaintzen zuten. Anaiak automotoa zeukan; eta nolakoa zen eta nola zaintzen zuten azaltzen du.</p>

9. Egunkaria haizearen kontra

- **Erref:** LGA-046/022
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:42:46. **Bukatu:** 00:44:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

<p>Mezara bizikletaz joaten ziren; eta egunkaria bularrean jartzen zuten,

horrela, ez hozteko haizeagatik. Sasoi ona zuten garai hartan, eta zer bidetatik ibiltzen ziren aipatzen du.</p>

10. Asturiasko alfereza

- **Erref:** LGA-046/028
- **Iraupena:** 0:01:47. **Hasi:** 00:51:05. **Bukatu:** 00:52:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Diziplinazko soldaduak zigortuta zeuden. Asturiaskoa zuten alfereza, eta zer eginarazten zien azaltzen du.</p>

11. Gernikako bonbardaketaren lekuko

- **Erref:** LGA-046/031
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:54:52. **Bukatu:** 00:57:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Lesakatik Gernikara eraman zituzten; eta, herria bonbardatu zutenean, han zegoen Juan. Egun hartako giroa eta ihesa gogoan du.</p>

12. Mendia bonbardaketa garaiko babesa

- **Erref:** LGA-046/033
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:59:02. **Bukatu:** 00:59:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Bonbardaketak iraun zuen bitartean, beraiek mendian egon ziren babesteko.</p>

Transkripzioa

-Juan, esan dezu lau orduz.

-Lau ordun bonbardeon Gernikan aittu zan.

-Eta bitartean zuek mendian?

-Ba guk mendia irten.

-Ta mendin nun egon ziñaten?

-Etzinda, etzinda lapitz bat (ahoa hartuta). Gui esaten ziun belarritati ude irtetzen dula bonbakin, eta hango zea genduken guk, ordena genduken lapitze edo plumeroa edo lapitze ahoan ibiltzeko; edo bestela egur bat igual, egur bat hartuta, baiño lapitze ibiltzen gendun eta hura hartu ta belarritati udik ez dula irtetzen. Belarritati ude irten ezkeo ba lehertuta geatzen zan.

-Eta mendin zu bakarrik egon ziñan ala bazenuen jendea inguruan jende

gehiago?

-Bai. Gaztea dana. Ahal tzuna, jun al tzuna, dana.

13. Gernikako bonbardaketa eta haren ondorenak

- **Erref:** LGA-046/035
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 01:00:41. **Bukatu:** 01:02:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Juan mendian egon zen Gernikako bonbardaketa gertatu zenean. Bonbak nolakoak ziren gogoan du. Mendian egoteagatik salbatu zen. Bonbardaketa bukatutakoan, herrira jaitsi eta laguntzen aritu ziren.</p>

Transkripzioa

-Zuek ikusten zenduen abioetik bonbak botatzen ari ziren garaia?

-Bai.

-Ikusten zan nola erortzen zan?

-Bai, bai, dana, dana!

-Nolakoa zan?

-Bonbak, bonbak zien holakoxe luzeerakok, haundik'e bai, baita milla kilokok ere bota zittuen baten bat edo beste; milla kilokok ere zulo galantak itten zittuenak han. Han bazeren irik, iri-pare bat bazeon han ta haiei'e jo zien bonbek ondón ta han dana txikituta utzi zittun haik'e. Irik'e, iri-parea.

-Juan, lau orduz mendin egon zihan?

-Bai, bai. Eta ni bezela ibiltzeko gauza zana dana. Mendira ihes inda, handik salbau gihen gu; mendin eon gihelako.

-Eta noiz jetxi ziheten?

-Illuntzan. Ta bueno, "ahora hay que ayudar aquí", ta jo..., hay que ayudar ta danak bildur... "Ahora que no se marche nadie de aquí, hay que ayudar al pueblo" ta. Hantxe. Launtzeko. Nik gaue pasau nun geo han. Bonbardioa einda gero gaue Gernikan pasau nuen nik, "Orden Publikoan" neon eta!

-Laguntzen.

-Bai, laguntzen.

14. Bonbardaketa osteko zereginak

- **Erref:** LGA-046/036
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 01:02:12. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gernikako bonbardaketa bukatu zenean, Juan eta beste hainbat pertsona herrira itzuli ziren. Orduan ikusitako irudiak gogoan ditu. Juan ordena publikoaz arduratzen zen, eta zer zeregin izaten zituen azaltzen du.</p>

Transkripzioa

-Juan, esplikau puxkat, zuk buruan eukiko dezu imajina ta. Kalera jatsi ziñen garaien zer ikusi zendun han? Nola zegon hura?

-Gernika? Ba dana harriz beteta, etxek oson dana tapauta. Eta han jendea, hemen dau nere ama, hemen dau nere andrea, hemen dau nere umea, eta billa hantxe harri pillan. Gora iota, harri arten gora iota; eran etxetaa junda haik, eta danak han dauzkela barrun familikok, kontatzen, hori ikusi gendun nik han. Hori han ikusi nun nik hori.

-Herioa.

-Zuk "Orden Público" zinen, zertan aritu zinen? Gorputzek ateratzen?

-Orden Público ba, guardia in behar izaten du, guardie ein, guardien ein behar izaten dittu, ta gau guztin'e han fusillekin. Karabinak, fusillek ez, karabinak genduzken guk. Eta hantxe guardin gauen.

-Toki baten ala kalean?

-Kalen, kalen. Kalea zaitzen. Ta geo kastigo haundie zeuken orden publikok.

15. Gerrako eskapadak

- **Erref:** LGA-046/039
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 01:07:51. **Bukatu:** 01:10:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

<p>Juan kartzelan egon zen gerra garaian. Behin eraso egin zioten, baina zortea izan zuen, eta onik atera zen.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-15

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com